



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

Oihane Agirregoitia

2024.06.07 Kanpaina ixteko mitina (Bilbo)

Arratsalde on Bilbo! Alderdikide maiteak, gaurkoa eskerrak emateko eguna da. Eskerrik asko nigan konfidantza jarri duzuen guztioi. Eskerrik asko alderdikide eta alderdizale guztiei: itzela izan delako gure aberriko txoko bakoitzean egiten duzuen lana ikustea eta ezagutzea. Itzela izan delako mezuren bitartez bidali dizkidazuen argazkiak, edo iradokizuak eta aurrez aurre emondako animo eta besarkadak. Eskerrik asko nola ez, nire taldeari, guzti guztioi. Eta nire taldea esaten dudanean zentzu zabalean esaten dut. Talde hau anitza izan delako; anitza, zabala eta aberasgarria; alderdi oso hau bezala.

Ordenagailu aurrean hainbat ordu pasatu dituztenak egon dira, bideoak grabatzen egon direnak, ekitaldiak prestatzen eta montatzen egon direnak, debateak prestatzen lagundu didatenak, hainbat ordu kotxean nirekin pasatu dituztenak, nire unerik makaleneetan hortxe egon direnak, nire itzala eta zutabe izan dena... Alderdiaren babes osoa sentitu dut txoratzeko modukoak izan diren azken aste hauetan.

A ze nolako esperientzia bizi izateko aukera izan dudan. Eta bene benetan, alderdi honetaz eta zuetaz, harro-harro nago izugarrizko konpromisua ezagutu dudalako, zuen konpromisua eta lana ikusi dudalako eta horrek izugarrizko indarra eta energia emon didalako. Eta noski, hortxe itzalean beti daudenei, nire familia, nire lagunak... Asko maite zaituztet! A ze nolako pazientzia izan duzuen egun hauetan, beti hortxe, txisteren bat kontatzeko edo behar nuena emoteko. Zuek guztiok gabe ibilbide hau ezinezkoa izango zitekeen.

Hau esanda, eskerrak emateko eguna da, bai, eta baita egin dugun lana borobiltzeko eguna. Gure aberria ezagutzeko aukera izan dut aste hauetan. Gaur, aste hauetan egin dugun kanpainako datuak erakutsi dizkizate: 8.000 kilometro; 35 elkarrizketa irrati, telebista, egunkarietan, eta elkarteekin; 8 eztabaida telebista, irrati eta foroetan; 28 kanpaina ekitaldi: 15 mitin eta 13 ekitaldi sektorial. Eta hau posiblea izan da, edukiak ditugulako, 160 proposamen ditugulako, ideiak ditugulako eta datozen 5 urteetan euskal herritarren alde lan egingo dugulako Bruselan, hiritarrek horrela erabakitzen baldin badute! Zuen ahotsa izango gara Europar zuen konfidantza emoten badiguzue euskal ahotsa Europar izango gara!

Eta gure aberrian zehar egindako ibilbide honetan, pertsona izugarriak ezagutzeko aukera izan dut baita ere. Mila esker Aitana, Rakel, Amaia, Jean eta Gracianne; mila esker nirekin zerrendan joan diren pertsona guztiei. Eta Andoni... mila esker zeuri ere, mitin aurreko paseilloak zugaz egitea plazer bat izan delako eta hortxe egon zarelako eguneroko zalantzak argitzeko edo niretzat berriak izan diren goi mailako politika gauzak kudeatzen laguntzeko. Eskerrik asko Joseba Aurrekoetxeari baita ere. Bihotz bihotzez, mila esker!

Eta kanpoan izan gara baita ere: Zaragozan egon naiz eta Madrilen 3 aldiz egon naiz baita ere. Eta beste alderdikide batzuen babesa ere izan eta sentitu dot Kataluniara, Balear Irlletara edota Galizara kanpaina egitera hurbilduaz. Hamaika mila esker Andoni, Aitor, Izaskun eta denori bide honetan lagundu izanagatik eta ni heltzen ez nintzen lekuetara joateagatik, hauxe bene benetako talde lana izan da!!!

Ya veis, será por compromiso y kilómetros. Último mitin de campaña: de enorme agradecimiento y de resumen final de propuestas. Sí, ¡propuestas! Las 160 propuestas que el Partido Nacionalista Vasco ha puesto encima de la mesa durante estas semanas y que ha sido uno de nuestros grandes diferenciales y que impulsaremos a partir del mismo lunes en Bruselas si la ciudadanía así lo decide.

Hemos defendido y tenemos propuestas para una Europa:

1. Que sea igualitaria, transformadora y que elimine nuestras dependencias exteriores
2. Que sea garante de paz y defienda los derechos humanos de todas las personas en todos los lugares del mundo
3. Que brinde nuevas oportunidades de empleo de calidad, especialmente para las mujeres y la juventud
4. Que reivindique el desarrollo del ecosistema industrial europeo, porque la industria vasca es nuestra prioridad;
5. Que preste atención al primer sector y que tenga en consideración las necesidades de arrantzales y nekazaris
6. Que sea fiel a ese lema de unidas y unidos en la diversidad y respete la diversidad de los pueblos como el vasco
7. Eta, noski, lan egingo dugu euskara ofiziala izan dadin Europako erakundeetan!

Este es nuestro compromiso. Esta es nuestra palabra. Por eso, el domingo hay que votar Partido Nacionalista Vasco. Para que seamos tu voz en Europa. ¡Porque tu voz importa! Representar a Euskadi en Europa es una responsabilidad, pero sobre todo es también un orgullo y un lujo.

**Indar
Berria
Europar**
Tu voz
importa

Oihane
Agirregoitia
Martinez



Euskadik prestigioa du Europar. Eredu gara hainbat gaietan. Horrela jarraitu behar dugu: lo hartu gabe, hobetzen, eta aurrera pausuak emanez. Pertsonengan pentsatuz. Gizarte eta ekonomia garapena sustatuz. Gure eredia. Arrakasta eredia EAJ-ren eredia Europar!

¡Os animo a que sigamos construyendo Europa entre todas y todos! Hemen da indar berria. Programarekin, proposamenekin, ideiekin. Betiko bizitasunarekin eta aurrekoen bultzadarekin. Zure ahotsa Europar egotea nahi baduzu, igandean bozkatu Euzko Alderdi Jeltzalea! Si quieres que tu voz se escuche alto y claro en Europa, el domingo, ¡vota Partido Nacionalista Vasco! ¡Tu voz importa!

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi askatuta!